



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Getxoko Kultur Etxea Tokiko Erakunde Autonomoa

Kultur Etxeko Zuzendari Teknikoaren lanpostua betetzeko deialdiari eta oinarriari dagokienez, abuztuaren 19ko 158 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkian akats bat antzeman da. Beraz, iragarki hori indarrrik gabe uzten da eta dagokion iragarkia osorik argitaratzen da.

Uztailaren 9ko Presidentearen 216/2024 ebazpenaren bidez hurrengo onartu zen:

Lehenengoa: Kultur Etxeko zuzendari teknikoaren lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Deialdiaren Oinarriak onartzea. Ebazpen honetan eranskin modura azalduko dira.

Hirugarrena: Deialdi hau eta oinarriak osorik argitaratzea Getxoko Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai eta deialdiaren laburpen bat ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Getxon, 2024ko abuztuaren 19an.—Getxoko Kultur Etxeko Presidente, Irantzu Uriarte Gómez



**GETXOKO KULTUR ETXEKO ZUZENDARI TEKNIKOAREN PLAZA BAT
LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO GISA BETETZEKO
HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

Lehenengoa. — Xedea

Oinarri hauen xedea da lehiaketa-oposizio bidez Getxoko Kultur Etxeko zuzendari tekniko lanpostura lan-kontratudun langile finko gisa sartzeko hautaprobeen deialdia arautzea

Bigarrena. — Aplikatu beharreko arautegia

Udal-plantillako plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
 - Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren testuategina
 - 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren erreformarako neurriena.
 - 11/2022 Legea, abenduaren 1koa, Euskal Enplegu Publikoarena
 - 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa.
 - 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
 - 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
 - 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
 - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzko Legearen testuategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
 - Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
 - 2/2004 Legea, otsailaren 25koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoak sortzeko buruzkoa.
 - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
 - Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
 - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
 - Deialdia arautzen duten oinarri hauek
- Arloan gainerako indarreko araudia.

Hirugarrena. — Plazaren deskribapena

Kultur Etxeko Zuzendari Tekniko plaza bat (1) deitu da.

- Lanpostuen zerrendako kodea: 60.
- Kategoria: A2.
- Lanpostu-mailako osagarria: 20.
- Osagarri berezia: 30.903,12 euro.



- Hizkuntz eskakizuna, euskara: 3.
- Derrigortasun-data: data barik.
- Titulazioa: Diplomatura.

Funtzioak

1. Kultur Etxean zein udal titulartasuneko beste instalazioetan edo espazio publikoan egin beharreko ekoizpen oro planifikatzea, kudeatzea, koordinatzea eta ebaluatzea, bai instalazioetan, bai kanpoko aldeetan.
2. Kultur Etxeko programazioari bideragarritasun teknikoa ematea.
3. Kultur Etxeko instalazioen kontserbazioaren, segurtasunaren, garbiketaren, zaintzaren eta erabilera onaren koordinazioaren arloan erantzukizun osoa izatea; ekipo eta instalazio guztiek ondo funtzionatzen dutela zaintzea.
4. Erosketa-politika, Kultur Etxeko ondasun eta zerbitzu zentralizatuen erosketa, inbentarioaren kontrol fisikoa, biltegien kudeaketa edo barneko beste zerbitzu logistiko batzuk zuzentzea eta gauzatzea, erabilgarri dauden espazioak arrazionalizatuz eta aurrekontuak eraginkortasunez kudeatuz.
5. Kanpo-logistikaren eta materialen garraioen, kargen eta deskargen gaineko erantzukizuna.
6. Programatutako ekoizpenak edo ekitaldiak egiteko beharrezkoak diren zerbitzu guztien kudeaketa, koordinazioa eta jarraipena.
7. Bere eskumeneko gaiei dagozkien aurrekontuak egitea eta kudeatzea, aurrekontu-egonkortasuna eta gastua gauzatzeko eraginkortasun ekonomikoa zainduz, aurrekontu-gastua arrazionalizatuz eta kontrolatuz.
8. Kultur Etxean edozein jardueratan lan egiten duten teknikariak koordinatzea, bere eskumenekoak diren eta beharrezkoak diren gai eta zerbitzu guztietan.
9. Kultur Etxeari atxikitako eraikinen osotasunaren koordinazio teknikoa, jarraipena eta kudeaketa.
10. Laneko arriskuen prebentzioari, segurtasunari eta osasunaren zaintzari buruzko politikaren buru izatea.
11. Autobabeserako Planaren arduraduna, esku-hartzeko burua eta larrialdietako burua izatea, titular edo ordezkio gisa, kasu bakoitzean eskatzen denaren arabera.
12. Antzeko beste edozein eginkizun.

Konpetentzia-atalak

- UC2248_3: Zuzeneko ikuskizun baten edo ekitaldi baten proiektu teknikoa gainerrako arduradunekin lankidetzan aritzea, ustiapen aldakorreko egoeretan.
- UC2250_3: Zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien instalazio tekniko eta ekipoen biltegitratzea, mantentze-lanak eta segurtasun-baldintzak kudeatzea, ustiapen aldakorreko egoeretan.
- UC2249_3: zuzeneko ikuskizunen edo ekitaldien muntaiaren, funtzio-zerbitzuaren eta desmuntatzearen gauzatze teknikoa planifikatzea eta koordinatzea ustiapen aldakorreko egoeretan.

Laugarrena.— Izangaiek bete beharreko baldintzak edo betekizunak.

1. Baldintza orokorrak. Deialdiaren xede diren Eskala eta Azpieskala sartu nahi duten izangaiek parte hartzeko hurrengo betekizun orokorrak bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.

Halaber, funtzionario gisa parte hartu ahal izango dute, espainiarrek enplegu publikoetarako dituzten baldintza berberetan, ondoren zerrendatzen direnek, salbu eta zuzenean edo zeharka botere publikoaren egikaritzan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorren babesean parte hartzea dakartenak; hona hemen:



- Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak.
 - Espainiarren ezkontidea eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontidea, edozein dela ere ezkontide horien nazionalitatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Horrez gain, baldintza berdinetan, bi horietako ondorengoek ere parte hartu ahalko dute, hogeita bat urte baino gutxiago badute edo adin horretatik gorakoak, mende-kotasuna badute.
 - Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, baldin eta itun horietan langileen joan-etorri askea aplikatu behar bada, idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera.
- b) Zereginak betetzeko behar den besteko gaitasun funtzionala izatea.
 - c) Hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabe egotea.
 - d) Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.
 - e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabeko erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiek ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.
 - f) Eskatutako titulazioa izatea edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Titulua atzerrian lortu duten izangaiek baliokotuta daukatela frogatu beharko dute, edo bestela, kasua bada, homologazioaren egiaztatzea badutela.

Aurreko betekizun horiek guztiak bete beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta hautaketa prozedura osoan mantendu beharko dira izendapena egiten den arte.

Bosgarrena. — Eskabideak

1. Aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea telematikoki egin beharko dute, honako helbide elektroniko honetan dagoen inprimakia beteta: www.getxo.eus. Gainera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira. Onetsi eta dagozkien hautaketa-probetan parte hartzeko, izangaiek adierazi beharko dute eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela; baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari lotuta daude beti, eta hautaketa prozesua amaitutakoan egiaztatu ahalko dira.

Eskabidean honako hauek utziko dira idatziz:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Norberaren titulazioa.
- c) Ariketak egiteko hautatu den hizkuntza ofiziala: euskara edo gaztelania.
- d) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- e) Hizkuntza-eskakizuneko probetan parte hartzeko eskaera.
- f) Dagokion deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla adieraziko da.

Merezimenduak deialdi honetako Zortzigarren eta Bederatzigarren Oinarriek ezartzen duten epean eta moduan alegatu eta ziurtatuko dira.

**2. Aurkezteko epea**

Hogei (20) egun naturalekoa izango da, deialdiaren azken iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

3. Eskabideak ez onartzea eta zuzentzea

Eskaera epean eta behar den moduan aurkeztu ezik, izangaia baztertuta geratuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluaekin bat etorritik, eskabideetan akatsak egonez gero, e-Oholean eta www.getxo.eus web-orrian iragarkia jarrita, interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epean akatsa edo hutsunea zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

4. Datuen babesa

Oinarri hauen xede den edozein hautaketa-prozesutan parte hartzeak esan nahi du izangaia baimena ematen duela eskabidean jasotako datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila) tratatzeko, datu horiek buletinetan, iragarki-tauletan, web-orrian eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren, ezagutza-maila egiaztatzeko eta, oro har, epaimahaiak berak edo epaimahaiaren aginduzko erakundeak edo enpresak hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko ere.

Oinarri hauetan azaltzen den hautaketa-prozesuan bete egin behar da publizitatearen printzipioa; horrenbestez, ez da onartuko eskabiderik, baldin eta izangaia ez badu datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzeko baimenik ematen.

Oinarri hauetan aipatutako hautaketa-prozesuak osatzearen ondoriozko lan poltsak eratzeari dagokionez hamaikagarren oinarriaren 4. atalean aurreikusitako ondorioetarako, izangaiek prozesu horretan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute haien datuak (izena eta abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) administrazio publikoko beste entitate batzuei lagatzearen aurka daudela, soilik eta eskusiboki beste entitate horiek lege ezarritako inguruabarretan enplegu eskaintzak egin ahal izateko; aurka daudela berariaz agerrarazten ez badute, horretarako baimena ematen dutela ulertuko da. Izangaiek helarazitako datuak fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren arduraduna Getxoko Kultur Etxea da.

Interesatutako pertsonak datuetara sarbidea izan, datuok zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahalko dute; horretarako idatziz jo beharko dute honako helbide honetara: Langileriaren eta Antolaketa-aren Arloa, Basagoiti etorbidea 20 Getxo edo helbide elektroniko honetara kulturetxealangileria@getxo.eus

Seigarrena. — Izangaia onestea

Eskabideak aurkezteko epealdia amaitzen denean, ebazpena emango da onartuen, baztertuen behin-behineko zerrendak onesteko, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarkien taulan eta www.getxo.eus webgunean argitaratuko da. Zerrenda horietan izangaien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia jasoko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta udaleko web orrian eta iragarki-oholean jarriko da ikusgai. Hamar (10) eguneko epea emango da baztertze horren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten hutsegteak zuzentzeko. Zuzentzeko epe hori igarotakoan, ebazpena emango da aurkeztutako erreklamazioak ebazteko, eta behin-behineko zerrendaren modu berrean argitaratuko da.

Onartuen, baztertuen eta uko egin dutenen behin-betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango da hilabe-



teko (1) epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Probak egiteko egunean jarritako errekurtoa ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dituzte probak. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtoa ezesten bada.

Onartutako eta/edo baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denean aurrera, hautaketa-prozesuan egin beharreko iragarki guztiak udalaren web orrian eta iragarki taulean argitaratuko dira.

Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozeduran eskatzen diren baldintzak aitortzen zaizkienik. Azkenean pertsona hautatzen badute, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat, prozedura honetan parte hartetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko ditu. Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzetako edozein betetzen ez duen izangairen bat dagoela, interesdunari entzun ondoren, hura baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta pertsona horrek parte hartzeko eskabidean egindako okerrak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

Zazpigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Eraketa eta jarduna

- Deitutako hautaketa-prozesuen epaimahai kalifikatzaileak osatzean bete egin beharko dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikulua, Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 127.1.h) artikulua, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 10. artikulua.
- Epaimahaiak lehendakari bat, idazkari bat eta bi bokal izango ditu. Osaketa nagusiki teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du. Beraz, kide guztiek deialdiko lanpostura iristeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanpostuaren ezagutza-arlo berekoa izan beharko dute, eta, hori egokia ez dela justifikatu ezean, epaimahaiak sexu bakoitzeko ordezkarien % 50 izan beharko du gutxienez.
- Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, korporazioko alkatetza udalburutzari jakinaraziz, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatuz gero, eta izangaiek errekusatu eta errekurtoak aurkeztu ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.
- Ezingo dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa-prozesuetan izangaiek prestatzeko lanak egin dituztenak, edo aldi horretan deialdiaren xede diren plazen area funtzional bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin edozein modutan kolaboratu dutenak.
- Epaimahaia osatuko duten titularren eta ordezkarien zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hautapen prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendekin batera, Presidentearen ebazpenaren bidez aurretiaz izendatu ondoren.
- Epaimahai kalifikatzailean parte hartuz gero, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko araudian lege aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dira.
- Epaimahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu konfidentzialtasuna bermatzeko. Ahal dela, azterketak zuzentzerakoan ez dira jakingo izangaien izenak.



- Epaimahaia eratu eta jardun ahal izateko gutxienez bertaratu beharko dira presidentetza eta idazkaritza postuak betetzen dituztenak (titularrak edo ordezkioak) eta gainerako kideen erdiak.
- Epaimahaiak bere lanetan aholkulari adituak barne hartu ahalko ditu, hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztietarako edo baten baterako. Adituok beren espezialitate teknikoa gauzatzera mugatuko dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 81.9 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aholkularitza eta ezagutza teknikoa emango dute, eta hitza izango dute baina botorik ez.
- Epaimahaikideek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea edukiko dute, idazkariak izan ezik; horrek hitz egiteko eskubidea edukiko du, baina botorik ez. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, ez baitu azken gaitasun hori izango. Epaimahairen erabakiak bertan dauden botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, mahaiburu diharduenaren botoak ebatziko du.
- Epaimahaia osatzen dutenek zein hautaketa-prozesuan esku hartuko duten aholkulari edo espezialistek, kasuan kasuko funtzioak betez, izangaien intimitate eta errespeturako eskubidea bermatuko dute, eta pertsona bakoitzari dagokionez bildutako informazioak tratamendu zuzena jasotzen duela zainduko dute.
- Epaimahaiak gaitasuna izango du hautaketa-prozesua zuzen eta modu egokian garatze aldera beharrezko erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan edo berariazko oinarrietan aurreikusi ez den guztian; bidenabar, oinarriok interpretatu eta aplikatzeari dagokionez sor daitezkeen zalantza oro ebazteko gaitasuna ere izango du, baita bere funtzioak garatzeari dagokionez ere.
- Komunikazioen eta gainerako gorabeheren ondorioetarako, epaimahaiaren egoitza Udalaren egoitza elektronikoan eta Langileen Arloko bulegoetan egongo da (Basagoiti hiribidea 77).
- Epaimahaiak ahalmena izango du hautaketa-prozesua behar bezala antolatu eta garatzeko behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, bai eta haren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren arazoak ebazteko eta bere eginkizunak betetzeko ere.
- Ebazpen horien aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Kultur Etxeko Presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena. — Hautaketa-sistema

1. Izangaiak hautatzeko sistema

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera kalifikatuko da.

2. Oposizio fasea. Arau orokorrak

- a) Oposizio fasea lehenago egingo da eta deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian ezarritako ariketek osatuko dute, eta deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datan indarrean dagoen araudia jakitea eskatuko da.
- b) Ariketak teorikoak eta praktikoak izango dira.

3. Lehiaketa fasea

a) Arau orokorrak

Oposizio fasea gainditu duten izangaiek argudiatutako eta ziurtatutako merezimenduak lehiaketa fasean aztertu eta baloratuko dira; bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian jarritako baremoekin bat etorritik.

Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango.

Lehiaketa fasearen balorazioa ezingo da inolaz ere ez izan oposizio fasean lor daitezkeen gehieneko puntuazioaren %45 (ehuneko berrogeita bost) baino han-



diagoa, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

- b) Fase horretan, bederatzigarren oinarrian zehaztutako merezimenduak baloratu dira, eta atal hauetan jasotakoa bete beharko da:

— Administrazio publikoan lanpostuak betetzeari buruzko esperientzia profesionala, haien ezaugarriak eta balorazioa Bederatzigarren Oinarrian zehaztu badira, berariaz baztertuz, atal honetan baloratzetik, zerbitzu zibil edo merkataritza zerbitzuen errentamendu kontratuak, bekak eta praktika profesionalak.

Oro har, esperientzia profesional hori administrazio publiko gisa hartuko diren entitate eta organismoen lotutakoa izango da, indarrean dagoen araudian jasotako esanahiaren arabera (bereziki Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 2. artikulua), eta organo eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da.

Ez dira baloratuko esperientziarekin zerikusia duten merezimenduak, berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta kategoria profesionala
- Kontratatuta egon den aldien edo izendapenaren hasiera eta amaiera datak.
- Lanpostuaren funtzio nagusiak.

Zerbitzuak hilabeteka baloratuko dira. Ondorio horietarako, dagozkienaldi guztiak modu independentean batuko dira, eta emaitza zati hogeita hamar egingo da, eta ateratzen den zatikia hilabete oso gisa zenbatuko da.

Inola ere ezingo dira kontuan hartu eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren egindako zerbitzuak.

Lanaldi partzialeko edo lanaldi murriztutako zerbitzuak eman diren aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat zenbatuko dira.

- Prestakuntza eta hizkuntzak: Titulazio akademiko ofizialen bidez behar bezala egiaztatutako ezagutzak izatea baloratuko da, betiere dagokion hautaketa-prozesuan onartua izateko gutxienekoak baino maila edo hedadura handiagoa badute. Bederatzigarren Oinarrian atal hori baloratzeko baldintza zehatzak adieraziko dira; hala ere, titulazioak eta prestakuntza baloratzeko eskabidean honako datu hauek adierazi beharko dira:
- Tituluaren izen ofiziala.
- Ziurtagiria eman duen entitatea.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte diren ikastaroak ez dira baloratuko; kasuan kasuko berariazko oinarriek hala aurreikusiz gero titulazioa baloratu ahalko da.

Titulazio akademikoak administrazio eskudunak baliozkotasun akademiko ofiziala duten tituluak ematea onartzen duten irakaskuntza publikoko edo pribatuko ikastetxeek eman behar dituzte.

Hizkuntzei dagokienez, ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea baloratuko da, deialdiaren Bederatzigarren Oinarrian ezarritakoaren arabera. Soilik baloratuko dira abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak. Errege-dekretu horrek ezartzen ditu, oinarrizko izaeraz, ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen eta errege-dekretuko arteko baliokidetasunak.

- Informatika-ezagutzak. IT txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako ezagutza informatikoak baloratuko dira, Bederatzigarren Oinarrian ezarritakoaren arabera.



Izapide honetan alegatutakoak ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, eta baldintzak eta merezimenduak izateko erreferentzia-data parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Xede horretarako emandako epean merezimenduen zerrenda eta haien egiaztapena aurkezten ez badira, ezingo da zuzendu.

4. *Euskara baloratzea*

Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 188.3 artikuluan ezarritakoaren babesean, euskara jakiteari emandako puntuazioa ez da izango hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko hogeai baino handiagoa, ez eta ehuneko bost baino txikiagoa ere.

5. *Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea*

Hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen bada.

Aukera horretatik salbuetsita daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira.

Nolanahi ere, euskararen edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskararen ariketa egiteko data izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Getxoko Udalari egiaztapena egiteko edo erregistro horretan salbuesteko.

Nolanahi ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatu ahal izango ditu bere datuak, esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

Hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa.

Bederatzigarrena. — Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta honako fase hauek izango ditu:

a) *Oposizio-fasea*

Oposizio-faseak hiru ariketa ditu, derrigorrezkoak eta baztertzailak. Gehienez 69 puntu lor daitezke.

- Lehenengo ariketa (teorikoa): Epaimahaiak egindako galderei erantzun laburra ematea izango da. Galdera horiek gai-zerrendako edukiei buruzkoak izango dira. 0-34 puntu emango dira, eta 17 puntu lortu beharko dira proba gainditu dela ulertzeko.
- Bigarren ariketa (praktikoa): kasu praktiko bat edo batzuk ebaztea, txostenak, proiektuak edo epaimahaiak proposatutako beste edozein proba praktiko egitea, epaimahaiak berak zehaztutako denboran eta moduan, eta gai-zerrendarekin lotuta. Ariketa egin aurretik, epaimahaiak zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua jakinaraziko ditu. 0-35 puntu emango dira, eta 17,5 puntu lortu beharko dira proba gainditu dela ulertzeko.



— Hirugarren ariketa: Euskara proba.
Borondatezkoa eta baztertzailea ez dena.

b) *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasea fase hori gainditu duten izangaiek oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da.

Behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Horretarako, 10 egun balioduneko epea emango du epaimahaiak edo Pertsonaleko eta Antolaketako arloak, udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez.

Merezimenduen balorazioa oinarri hauetan zehaztutakoaren arabera egingo da, eta ezin izango da bestelako merezimendurik alegatu. Ez da baloratuko epe horretan alegatu eta egiaztatu ez den merezimendurik.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Lehiaketa-fasean gehienez ere 31 puntu lor daitezke.

Fase horretan, merezimenduak honela baloratuko dira:

a) Esperientzia: Gehienez 10 puntu emango dira:

- Zuzendari tekniko postuari dagokion kategorian (A2 azpitaldea) herri-administrazioan egindako zerbitzuengatik, eta 0,10 puntu emango dira hileko.
- Herri Administrazioetik kanpo egindako zerbitzuak baloratuko dira, zuzendari teknikoaren kategoriari dagozkionak, eta 0,05 puntu emango dira hilabete bakoitzeko.

b) Prestakuntza: 6 puntu emango dira gehienez, honela:

Titulazioak eta gradu akademikoak: gehienez 3 puntu.

— Doktoretza: 2 puntu.

— Postuko funtzioen %60 baino gehiagorekin lotutako Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza edo Graduak titulatu bakoitzeko (sarbidekoaz bestelakoa): 1,5 puntu.

— Lizentziatura/Arkitektura/Ingeniaritza edo Graduak titulatu bakoitzeko (sarbidekoaz bestelakoa): 1 puntu.

— Funtzio- edo ezagutza-eremuarekin lotutako unibertsitate-masterreko titulatu bakoitzeko: puntu 1.

Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa, alemana, gehienez puntu 2.

— C1eko edo goragoko maila bakoitzeko: 1,5 puntu; B2: puntu 1; B1: 0,5 puntu.

Informatika-ezagutzak: puntu 1 gehienez, 0,25 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003/maila aurreratua.
- Internet aurreratua.

Euskararen ezagutza

Euskara jakitea baremo honen arabera:

- 1. HE: 5 puntu.
- 2. HE: 10 puntu.
- 3. HE: 15 puntu.

Epaimahaiak, oposizio-riketak eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa amaituta, sailkapen-ordena ezarriko du, handienetik txikienera, hautaketa-prozesuko bi faseak batuta.

**d) Probaldia:**

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktikaldia egitea. Hautaketa-prozesua puntuazio onenarekin gainditzen duen izangaiak lortu ahal izango du probaldia.

Praktiketako langile gisa izendatzen diren izangaiak udal-langileen mugak arautzen dituen akordioan adierazitako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta alta emango zaie Gizarte Segurantzari.

Probaldia sei (6) hilabetekoa izango da, eta emaitza gai/ez gai izango da.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozedura garatzea**1. Argitaratzea**

Oposizio-faseko lehenengo ariketa hasteko lekua, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Getxoko udalaren webgunean eta Udalaren iragarki taulan argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Oposizioaren gainerako ariketak egitearen ondorengo iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu Udalaren webgunean eta iragarki taulan. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira.

Era berean, ariketa bakoitzeko puntuazioak jendaurrean jarriko dira Udalaren web-orrian eta iragarki-oholean dagokion iragarkia jarrita.

2. Deialdia

Izangaiei behin baino ez zaie deituko proba bakoitza egiteko; izangaietako bat zeinahi proba egiteko aurkeztzen ez bada deitu dioten unean, automatikoki ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko du eta, beraz, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak libreki antzemandako kasuetan salbu. Arau berdina erabiliko da izangaiak nahitaezko ariketaren bat egitera aurkeztzen direnean, ariketa horiek hasita egonda. Borondatezko probak egitera berandu joaten badira edo ez badira aurkeztzen, proba horiei uko egin zaiela uste izango da.

3. Kalifikazioei buruzko azterketak eta erreklamazioak berrikustea

Arau orokor gisa, hiru egun balioduneko epea ezarriko da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, egindako azterketak berrikusteko edo horien kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

4. Identifikazioa

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahalko die izangaiei haien burua behar bezala identifika dezaten; horretarako, oposizio faseko ariketa guztiak egitera NANarekin edo beste edozein agiri ofizialekin bertaratu beharko dute, epaimahaiaren aburuz aski bada izangaiaren nortasuna egiaztatzeko (pasaporte, gidabaimena, Atzerriarraren Identifikazio Zenbakia, eta abar).

5. Denborak eta baliabideak egokitzea

Bat etorritik abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuko 8. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikuluan ezarritakoarekin, epaimahaiak gaitasuna izango du deialdi honetako azterketak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen gisan moldatzeko, desgaitasunen bat egiaztatu eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere horrekin ez bada azterketaren edukia hutsaltzen, eta bertan eskatutako gaitasun maila ez bada kaltetzen edo murrizten; azterketak gainerako izangaien baldintza berdinetan egiten direla bermatu beharko da.

**6. Haurdunaldia eta bularra ematea**

Haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeek eskatu ahal izango dituzte egokitzapen materialak, aurretiaz, gutxienez, proba egin baino bost egun baliodun lehenago, Langileriaren Arloan jakinarazten badute. Emakumezko izangairen batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldia edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa-prozesua burutu edo hautaketa-prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzapean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko du eta geroraturako faseak gainditu beharko ditu; baina fase horiek ezingo zaizkio gehiegi atzeratu, gainerako izangaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzeko. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroraturako probak.

7. Ariketen arteko tartea

Oposizioko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxienez 72 orduko epea igaro beharko da, eta gehienez 45 eguneko epea. Hala ere, eta egokitzeaz joz gero, epaimahaiak zenbait ariketa saio berean egitea ezarri ahalko du.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**1. Ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratzea**

Oposizioaren azken ariketa amaitu eta lehiaketa_aldiko merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, puntuazio hurrenkerraren arabera. Zerrenda horretan, oposizio aldiko ariketen kalifikazioak eta guztirako batura jasoko dira.

2. Hautatutako pertsonen zerrenda

Hautaketa-prozesuaosatzen duten proben eta merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera. Zerrenda horrek ezin izango du gainditu deitutako plaza guztien kopurua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori organo eskudunari bidalita. Aldi berean, azken bilkurako akta bidaliko da. Akta horretan, puntuazioaren arabera ordenatuta, proba guztiak gainditu eta deitutako plaza-kopurua gainditzeko duten izangai guztiak agertuko dira. Hori guztia plaza lortu dutenetako bat lanpostuaz jabetzen ez den kasurako bakarrik egingo da, eta azken zerrenda horretan sartzeak ez du ekarriko beste eskubiderik edo itxaropenik.

3. Behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa lehiaketa- eta oposizio-faseetan lortutako puntuazioen batura izango da. Emaiza horren arabera sailkatuko dira hautagaiak.

Ariketak eta merituak kalifikatu ondoren epaimahaiak jendarean erakutsiko ditu onartutako hautagaien izenak, azken puntuazioaren arabera antolatuta.

Puntu-berdinketarik gertatuz gero, irizpide hauen arabera ebatziko dira, lehentasun-ordena honetan:

1. Ariketa praktikoan puntuazio altuena.
2. Oposizio-aldian puntuazio altuena.
3. Puntuazio altuena administrazio publikoan denbora gehien lan egin izana egiaztatzen duenari.

Onartuen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun balioduneko epea egongo da egokitzeaz jotzen diren erreklamazioak egiteko.

Epaimahaiak, hala behar izanez gero, erreklamazioak ebatzi ondoren proposamena eskumenak dituen organoari bidaliko dio dagokion kontratazio-proposamena egin dezan. Epaimahaiak edonola ere ez du plaza-kopurua gainditzeko duen hautagai-kopururik proposatuko.

**4. Lan poltsa**

Hautaketa-prozesutik ateratzen den plazarik gabeko gaindituen zerrenda lehentasunezkoa izango da Kultur Etxearen aldi baterako beharrei erantzuteko, indarrean dagoen araudiaren arabera aldi baterako izendapenen bidez. Zerrendako hitzorduen ondoren, ariketa gehiago korrelatiboki gainditu dituzten izangaiena etorriko da, bakoitzean lortutako puntuaziorik handienaren arabera. Aurreikuspen horrekin, lan-poltsak arautzen dituen indarreko udal-araudia beteko da hautaketa-prozesu bakoitza amaitzean.

5. Datu pertsonalak eta lan-poltsa eratzea

Hautagaien datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira eta hautaketa-prozesuan erabiliko dira, eta fitxategi horretan datu pertsonalak babesteko araubidea aplikatuko da. Datu pertsonalak babesteko araubidearekin bat eginez eta hautagaiek aurretiaz berriazko baimena eman ondoren (eskarian adierazitakoa), hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien datuak beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, antzeko beharrak betetzeko hain zuzen ere.

6. Epaimahaien ebazpenak

Epaimahai kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egin behar duen organoarentzat; nolanahi ere, aipatutako organoak ebazpenak berrikus ditzake, bat etorri indarrean dagoen Administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legearekin.

Hamabigarrena. — Agiriak aurkeztea**1. Dokumentuen zerrenda**

Funtzionario izateko proposatutako pertsonen deialdiaren oinarrietan hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte Langileen Arloan, 20 eguneko epean, gainditutakoen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- Nortasun Agiri Nazionalaren edo dagokion Erregistro Zibilak emandako jaio-tza-ziurtagiriaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta.
- Kargu publikoetan jarduteko desgaiturik ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik at diziiplina espedientearen bidez geratu ez dela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena.
- Administrazioaren zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun zioen eraginpean ez egotea dioen aitorpena.
- Oinarri eta deialdiaren oinarrien arabera dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela jasotzen duen mediku-ziurtagiria. Ezinduak diren izangaiek, gainera, dagokion plazako eginkizunak betetzeko gaitasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiko Ezinduen Oinarrizko Zentroak emana.
- Oinarri hauetan plazan sartzeko eskatzen den titulua, horren kopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.
- Kasuan kasuko deialdian eskatutako berriazko gainerako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agiri bidezko justifikazioa.

2. Epeak ez betetzea

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkezten ez badute, edo deialdian parte hartzeko azterketatik edo osasun-azterketatik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat betetzen edo ez dituela eskatutako betekizunak betetzen, horrek automatikoki baztertzea ekarriko du, eta ezin izango dira izendatu, eta haren jarduera guztiak baliogabekuta geratuko dira. Nolanahi ere, eskabidean faltsutzeagatik erantzukizuna izan dezakete, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatu badute. Kasu horretan, izendapen proposamena egingo



da hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenen artean aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen diren izangaien alde. Hautaketa-prozesu hau gainditu duten pertsonen zerrendak baliagarriak izango dira bitarteko funtzionarioak izendatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan eta kategoria horietan gerta daitezkeen gainerako kontratazioetarako.

Hamahirugarrena. — *Langileak kontratatzea*

Getxoko Kultur Etxeak kontratazioa egiteko kontratu mugagabea egingo dio eskaintako plaza finkorako epaimahaiak proposatutako hautagaiari. Kontratazio-proposamena interesatuari jakinaraziko zaio eta iragarki-oholean argitaratuko da.

Sei hilabeteko probaldia egongo da.

Hamabosgarrena. — *Azken xedapena*

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio oinarri horiek onartu dituen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, biak ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 113. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**GAITEGIA**

1. Oinarrizko araudia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: Udal antolaketa. Oinarrizko organoak eta organo osagarriak. Eskumenak. Kultur Etxearen estatutuak

2. Administrazio-prozedura erkidea: fasea

3. Tokiko aurrekontua. Gastuaren faseak.

4. Kontratazio publikoa. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: kontratazio-espedientea prestatzea. Presako eta larrialdiko izapidetzea. Administrazio-klausulen pleguak. Kontratu txikietako kontratazio-espedientea. Xedea, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta berrikuspena. Kontratua esleitzeko betekizunak eta irizpide motak

5. Zeharkako araudia. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa: Atariko Titulua eta II. Titulua. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Hitzaurrea. I., II., III. eta IV. tituluak. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

6. Ikuskizunaren araudia. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunena eta Jolas Jarduerena. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duena. Lanpostuaren eginkizunei eta irismenari eragiten dieten Getxoko Udal Ordenantzak.

7. Segurtasuna. Titulartasun publikoko eraikinei aplikatu beharreko araudia. Zaintza eta babesa, sarbideen eta irteeren kontrola, gorabeheren kudeaketa, bideozaintza, alarmak, intrusioaren aurkako sistemak, segurtasuneko langileak.

8. Laneko arriskuen prebentzioa eta babes zibila. Eduki orokorrak, gaitasunak eta tipologia. Babes zibileko zerbitzu publikoa. Definizioa eta eskumenak. Larrialdi-egoeretan babes zibilaren arloko eskumenak. Lokaletan eta eraikinetan autobabesa diseinatzea. Egitura arkitektonikoek suaren aurka duten portaera. Egiturazko babesa. Kultura-espazioekin lotutako laneko arriskuen prebentzioa. Segurtasuna kargen esekiduran. Soinu-kutsadura eta entzumen-babesa. Oztopo arkitektonikoak. Oztopoak. Seinalezta-pena, etab. Laneko segurtasuna eta higienea, lesioen prebentzioa. Sorospena. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei, banakako babesen erabilerari eta lan-ekipoen erabilerari buruzko araudia (486/1997, 773/1987 eta 1215/1997 Errege Dekretuak). 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Xedea, aplikazio-eremua. Eskubideak eta betebeharrak. Prebentzio-zerbitzuak.

9. Publikoak kudeatzea. Eraikinen edo kultura-espazioen irisgarritasuna eta ingurunea. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren establezimenduetan pertsonak onartzea. Giza portaera ikuskizun publikoetan eta jolas-jardueretan. Masa-psikologia. Masa-ekitaldietako segurtasuna. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa. Xedea eta eremua. Irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak. Erreserbak. 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

10. Ekoizpenaren legezko kudeaketa. Ikuskizunen ekoizpenari, antolaketari eta muntaketari buruzko araudiak eta legeria, udal, eskualde eta nazio mailan. Beharrezko baimenak eta ekitaldi baterako eska daitekeen dokumentazioa. Kaleko ikuskizunak, tipologia, aurre-produkzioa, ekoizpena, baimenak eta lizentziak.

11. Eguraldi txarra eta baldintza txarrak. Arrisku-plana. Ezereztea. Euria. Haizea. Gehiegizko beroa. Euskadiko tokiko merkatuak eta azokak antolatzeko gida.

12. Informatikako ezagutzak, bai ofimatikan, bai diseinu eszenikoko programetan. Softwareari buruzko ezagutzak: Autocad, Capture eta Qlab.

13. Arte eszenikoekin eta zuzeneko ikuskizunekin lotutako lanbideak; funtzioa eta gaitasunak. Oinarrizko jardueren eta lan-sistemen eta ekitaldi eszenikoen (antzerkia,



dantza, kontzertuak, etab.) inguruko ezagutzak. Ekoizpen-, koordinazio- eta kudeaketa-taldea. Talde artistikoa.

14. Taldeen Zuzendaritza: Pertsonak eta taldeak zuzentzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak. Antolamendu-portaeraren hastapenak. Hierarkia, antolamendu-egitura eta lan-prozesuak. Gatazkak konpontzea.

15. Talde teknikoak: errealizazioa, espazioetako ekipo teknikoak, talde teknikoak berran. Zerbitzu-enpresak. Agertokiko kudeaketa. Jardueraren aplikazio-eremua. Eskumenak. Produkzio bat antolatzea. Organigrama funtzionala eta hierarkikoa. Talde artistikoa eta teknikoak. Atal teknikoen lan-prozesuak.

16. Aretoko langileak. Publikoari laguntzea, espazio eszenikoetan. Aretoko burua. Ateetako eta aretoetako langileak. Aretoko langileak: Funtzioak eta betebeharrak jendearen sarreran eta ordezkartzan. Kaleko laguntzaileak.

17. Ikuskizunaren kultura. Antzerkia edo espazio eszenikoak, hainbat garaitan. Dantza: historia eta estilo ezberdinak. Opera, opereta eta zarzuela. Beste genero batzuk: aldizkariak, musikala, txotxongiloak, kalejirak, kaleko antzerkia. Multimedia-ikuskizunak

18. Antzerki-eraikina. Ikuskizun-aretoak. Espazio eszenikoen motak: anfiteatro grekoa, isabeldarra, italiarra, erdiko espazioa, etab. eta horien gelak. Azpiegitura-sistemak. 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskarpen teknikoari buruzkoa. EITren edukia eta prozedura. Esku hartzen duten agenteak. EAEko eraikinen ikuskarpen teknikoaren erregistroa.

19. Instalazioak eta ekipamenduak mantentzea. Berokuntza-instalazioak eta horien tipologia. Bero-ponpa. Berokuntza elektrikoa. Eguzki-energia eta erregai organiko bidezko berokuntza. Aire egokitzeko sistemak. Ikuskizunetarako espazio eszenikoen eta ekipamenduen mantentze integrala eta espezifikoa. Eraikinen osotasunaren mantentze prebentiboa, zuzentzailea eta errektiboa. Ekipamendu teknikoaren mantentze eszenikoa eta mantentze-lanak. Bizitza baliagarria. Inbentarioa kudeatzea, biltegiratzea eta kontserbatzea. Mantentze industrialaren eta instalazioen helburuak. Mantentze-lan motak: prebentiboa, zuzentzailea, prediktiboa, guztizkoa. Mantentze industrialari buruzko araudia, konkurrentzia publikoko eraikinari aplikatua. Mantentze-lanak planifikatzea. Kostuak. Dokumentazioa. Ziurtagiriak. Behe-tentsioko instalazio elektrikoak mantentzea ikuskizunean. Jasotzeko ekipoak eta sistemak mantentzea. Luminotekniko, soinuko eta ikus-entzunezko tresneria mantentzea. Klimako eta ur bero sanitarioko instalazioak mantentzea. Instalazioak eta babes-ekipoak mantentzea. Lan-lokalak eta biltegiak mantentzea eta garbitzea. Kalitate-arauak.

20. Eszenografia; funtzioa; diseinu eszenografikoaren osagaiak, estiloak eta baldintzatzaileak

21. Antzerkiaren beste sail batzuk. Tresneria. Jostundegia. Makillajea. Zamalanak. Laguntzaileak.

22. Antzerkiko terminologia. Antzoki bateko espazio, tresna, figura eta metodologiaren glosarioa

23. Makineria eszenikoa. Makinistaren irudia. Antzerki-makineria, historia eta garapena. Italiar erako eszenatoki baten zati nagusiak. Makineria eszenikoaren beste elementu batzuk: makinak, motorrak, esekidura-elementuak, material mugikorra (tripodeak, trusessa, etab.) Oinarritzko eraikuntzak (harilkatuak, erabilgarriak, etab.) Draperia eszenikoak. Egiturazko elementuak. Egitura autosostengatzaileak. Truss. Makineria eszenikoaren funtzionamendua. Jasotzeko makinak eta sistemak: poleak eta polipastoak, engranajeak, torlojuak eta kremaierak, kontrapisu-sistemak. Sistema pneumatikoak, hidraulikoak eta elektrikoak. Kargak eteteko araudia. Aldi baterako instalazioak. Rigging ezagutzak Ikuskizunaren lengoaiaren ezagutzak. Aktoreen hegaldia. 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, jasogailuen eta mantentze-gailuen erregelamendua onartzen duena.

24. Efektu eszenikoak. Efektu eszenikoen makinak. Efektu bereziak. Sua, sutearen kontrola eszenatokian, segurtasun-neurriak. Kea, motak eta propietateak.



25. Sua. Su-motak eta horien kausak. Ikusleen agertokia eta eremuak: sektorizazioa. Suebakia. Ateak. Ignifugazioa: materialak eta tratamendua. Erregai likidoak eta gasosoak: ezaugarriak eta sailkapena. Sute- eta leherketa-kausak. Erabiltzeko eta biltegitratzeko baldintzak. Seinaleztapena eta identifikazioa. Itzalgailuak: motak, ezaugarriak eta eraginkortasuna. Suteen aurkako instalazioak: Detekzio automatikoa. Suteen aurkako instalazioak: itzaltzeko sistema finkoak. Kearen eta suaren transmisioa eraikinetan. Suteen aurka babesteko instalazioen araudia. Piroteknia, erabilera eta segurtasun-neurriak. Edozein motatako karga piroteknikoa duten ikuskizunen araudia, baimenak eta ekoizpena. 989/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, piroteknia-gaien eta kartutxoaren erregelamendua onartzen duena.

26. Antzerkiko arropak jartzea eta erabiltzea. Kamera beltza. Bisualak eta aforatuak kalkulatzeko: babesak, mantuak, arlekinak, aho-oihala, hankak, etab. Gehien erabiltzen diren gortina motak eta horien funtzionamendua. Gazak, tulak. Islapen-kamerak

27. Mekanika; ingurune eszenikoari aplikatutako ezagutzak: estatikoa, dinamikoa, makina-elementuak. Espainian eskatutako segurtasun-arauak.

28. Marrazketa Teknikoa. Marrazketa teknikoaren hastapenak, eskalak. Planoak egitea eta interpretatzea. Krokisak: esku hutsezko marrazkia. Geometria: laua eta hiru dimentsiokoa. Perspektiba, espazioaren kontzeptua eta tridimentsionaltasuna.

29. Oinarrizko elektrizitatea. Kontzeptuak eta magnitudeak. Zirkuitua korrante zuzenean. Zirkuitua ca-n. Sistema trifasikoen nozioak. Motorrak. Potentzia-transformadoreak. Aparamenta. Behe-tentsioko instalazio hartzaileak. Arrisku elektrikoaren aurkako segurtasun-arauak (lan-tresnak, ekipoak eta horien manipulazioa; ekipoen eta instalazioen egoera; babes aktiboak eta pasiboak; pertsonak babesteko gailuak; elektrokutatzearen arriskua eta elektrokutatzearen lehen sorospenak). BTrako Erregelamendu Elektroteknikoa (jendearentzako lokalak, behin-behineko instalazioak eta xede bereziko instalazioak: azokak eta standak).

30. Oinarrizko elektronika. Erdieroalearen definizioa. Artezteko erdieroale kontrolatu gabea. Potentzia-zuzenketa eta -kontrola. Transistorea anplifikadore gisa: Multietapa-Erantzuna maiztasunean. Sistema digitaletarako sarrera – Funtzio logikoak. Laginketa – lehenagoratzeko – AC eta CA bihurtzeko gailuak. Sistema sekuentzialetarako sarrera. Osagai pasiboak eta aktiboak. Oinarrizko zirkuitu elektronikoak.

31. Hari gabeko sistemak. Materialak, oinarrizko ezagutzak, muntaia eta erabilera.

32. Luminoteknia. Argi adierazgarria. Antzerki-eraikina, ekipamendu luminoteknikoaren ikuspegitik. Argi-iturriak eta proiektagailuak. Intentsitate-kontrola. Dimmer-ak eta mahaia (transmisio-protokoloak). Usaina, hedapena eta forma. Argiztapen baten idatzizko transmisioa

33. Soinu-teknika ikuskizunean. Soinuak ikuskizunean duen esanahia. Soinu-ekipo baten oinarrizko egitura, osagaiak; soinu-teknikariaren oinarrizko lanak. Soinuaren fisika. Altuera, tinbrea, maila; oinarrizko unitateak; soinu-teknikariaren oinarrizko lexikoa. Mikrofonoak (ezaugarriak, kokapena, mikrofono bat aukeratzea). Bozgorailuak, kutxak eta bozgorailuen eta kutxen multzokatzeak. Potentzia-etapak, prozesadoreak, crossover-ak. Nahasketa-mahaia. Ondorioak. Soinu-iturriak. Ekipo bat muntatzea (antzerkirako, musikarako). Soinuaren gidoi teknika, muntaia eta edizioa. Ekipoa ikuskizunaren arabera. Oinarrizko nozioak. Interkomunikazio- eta jarraipen-sistemak.

34. Bideoa eta irrati-difusioa. Irudiaren eta irrati-difusioaren fisikako oinarrizko ezagutzak. Irudia kontrolatzeko mahaia. Bideo-seinalea prozesatzeko sistemak. Bideoa editatzeko sistemak. Bideoa grabatzeko eta erreproduzitzeko sistemak. Irrati-difusio sistemak. Irrati- eta telebista-unitate mugikorak.

35. Ikuskizun baten teknika eta prozesua. Ikuskizuna prestatzeko eta planifikatzeko alderdi orokorrak. Eszenografiak eta tresneria muntatzea. Desmuntatzea, biltegitratzea eta kontserbatzea. Lan-prozesua. Ikuskizuna prestatzea. Plangintza. Eszenografiak muntatzea. Tresnak eta stockak; inbentarioak. Fitxa teknika. Enpresa-jardueraren kontrola. Ibilbide-orria. Fitxa teknikoaren helburuak. Fitxa teknika osatzen duten dokumen-



tuak. Informazioaren hierarkizazioa. Fitxa tekniko motak, irudikapen-espazioen arabera. Negoziazioa.

Aurkaratzeko bideak

Ebazpen hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c) artikuluekin bat etorriz. Hala ere, aukerako izaeraz eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aipatutako 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.